

# ALA HIL

Guk sortzeko prestatu dugun enpresaren izena ALA HIL da. Izen honek jendearen artean eszeptikoasun asko sortuko duelataz jakitun gara. Horregatik, esan genezake enpresa hau ez dela edozein jendearentzat sortua, edo ez gutxienez egungo gizartearen estandarretara jotzen duen zerbait.

Hala ere, edozein adineko, sexuko edota nazionalitatea pertsona gonbidatzen dugu beso irekiekin guk eskaini behar duguna jasotzera. Enpresa honetan bi Iturbide daude edo bi zatitan dago banatuta enpresaren jarduera. Lehenik eta behin, diskografia bat gara, hau da, euskal taldeak kontratatuz gero, beraiekin lan egin eta ahalegin eta produktibotasun handiena lortzen saiatuko gara.

Bestalde, diskografia bat izateaz gain, kafe antzoki baten jabe egitea erabaki dugu, bertan DJ ezberdinak etor daitezen, eta gure taldeak direnak eta ez direnak kontzertuak jo ditzaten bertan.

Beraz, orain gure jardunaren, gure entzule edo bezeroen eta izenaren arteko lotura bat bilatu beharko genuke. Euskal musika aipatu dut lehen, baina beste ezaugarri bat eman beharko nuke, gure taldeak Punk-Oi! generokoak izango dira, 80ko hamarkadako musika gogoratuz eta haien mugimendua jarraitzeko edo sustatzeko asmoz.

Horregatik, gure entzuleak nahiko no kretuak izango dira eta ez da oso musika irekikorra edo zabala izango. Gainera, hamarkada horren Pausoa berriro eman dadin, talde zaharrekin kolaboratzen saiatuko gara, baita estreinatu edo sortu berri diren taldeak. Horrela, Punkaren sorrerari jarraitasuna emanez. Horrexegatik izena, Punkaren aztarnak jarraitu, ALA HIL.

